

Donostian, Aldundi-jauregian, mila bederatzireun eta berrogeta-amazaspi garren Urteko Epailaren ogetabederatzian, dei-eginiko batzarra egitera batzen da Euskaltzaindia. Maipuru, Etxaide jauna. Batzarkideak, Villasante, Mitxelena, Lekuona ta Oleaga, Euskaltzainak; Arrus ta Lojendio, Euskaltzain-ordeak, eta Etxaniz, Urgazlea.

Araudizko ototza egin-eta, lenaurreko batzar-agiria ontzat artuida.

Urrengo, Zadorlariak adierazten dau, aspaldian erdi-golduta edo, egon dan Erdera-Euskera iztegi barraren A izki-atala agertu dala ta gutundegian beste atalakaz batera ezarri dala.

Gero Etxaide jaunak azaltzen dauz Euskaltzaindiaren alde norbaitzuri egin dautsezan diru-eskariak.

Oleaga jaunak diño egoki litzakela, "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" izenegaz lenago iñarduan Batzordea barriz atondutea eta beronen lana, sail bitan ebagitea: bata Jakintza gaiari buruz, ta bestea Txindi batzearen arduraz. Olan onetsi da ta Oleaga berak ekin beio lan oneri.

Añueren asmoz, **Euskera**, Euskaltzaindiaren aldirokoaren oraintsuko ekiaren atontzaleai, ta batez bere Alfonso Irigoyeni, zorion-agur sutsua erakustea erabagi da.

Azkenez, Distribuidora E D A ren idazki bat irakurri da. Bertan diño euskal-liburu eta aldizkariak banatu ta edatzeko eratu dala, ta nai bada Euskaltzaindiak sortu daikezan lanen edatzaile izateko gertu dagoala. Aintzakotzat artu da eskari ori.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.